



Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia 2022-2026

*3as anglé
Aurreratu
Avanzar*



EUSKO JAURLARITZA

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

978-84-457-3647-0

A standard linear barcode representing the ISBN 9788445736470.

9 788445 736470

Ijito
Herriarekiko
Euskal Estrategia
2022-2026

*3as anglé
Aurreratu
Avanzar*



Vitoria-Gasteiz, 2022

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/Jooo1

Argitaraldia:
1.a, 2022ko martxoa.

Ale-kopurua:
50 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako saila

Internet:
www.euskadi.eus

Diseinua eta maketazioa:
Quod Sail S.L.

Inprimaketa:
Eusko Jaurlaritzako Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua

L.G.:
LG G 243-2022

ISBN:
978-84-457-3647-0

Aurkezpena	5
Sarrera	6
I. blokea. Testuingurua	9
1. Ahots propioa duen herria	9
<i>1.1. Hurbilketa historiko laburra</i>	
<i>1.2. Ijito Herriaren egungo errealitatea EAEn</i>	
<i>1.3. Diskriminazioa eta sentitutako beharrak</i>	
<i>1.4. Covid-19 pandemiaren eragina</i>	
2. Abiapuntua	14
<i>2.1. Aurrekariak</i>	
<i>2.2. Ikaskuntzak</i>	
3. Jarraitutako metodologia	16
II. blokea. Lanketa	18
4. Esku hartzeko ikuspegiak	18
5. Kontseiluaren zereginha	20
6. Koherentzia eta gobernantza	21
III. blokea. Esku-hartzea	24
7. Printzipioak eta helburuak	24
<i>7.1. Ijito Herria gizarteratzeko oinarrizko printzipioak</i>	
<i>7.2. Estrategiaren helburu orokorra eta zehatza</i>	
8. Estrategiaren edukia eta kudeaketa-eredua	24
<i>8.1. Antolamendua eta egitura</i>	
<i>8.2. Ebaluazioa eta jarraipena</i>	
9. Ekintzen deskribapena	27
<i>9.1. Hezkuntza</i>	
<i>9.2. Osasuna</i>	
<i>9.3. Etxebizitzza</i>	
<i>9.4. Gizarteratzea eta laneratzea</i>	
<i>9.5. Benetako berdintasuna</i>	
<i>9.6. Praktika kulturalak eta nortasun propioa</i>	
<i>9.7. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna</i>	
10. Ekintzen egutegia finkatzeko proposamena	79
Eranskinak	86
I. Ardatz estrategikoen araberako laburpen-taula	86
II. 2022-2026 Euskal Estrategiaren eta Estatuko I. Plan Eragilearen arteko bateragarritasuna	93
III. 2022-2026 Estrategiaren egokitzapena 2020-2030 Esparru Europarrean	96



Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia
2022-2026

Aurkezpena

Niretzat ohore handia da Ijito Herriarekiko 2022-2026 Euskal Estrategia berria aurkeztea. Eusko Jaurlaritzak, euskal erakundeok, behin eta berriz erakutsi dugu Euskal Herriko ijito herriarekin daukagun konpromisoa. Estrategia berri honen bidez, konpromiso hori berresteaz gain, *aurrera egin nahi dugu, 3as anglé*, euskal gizarte bidezkoagoa eraiki nahi baitugu, inklusiboagoa, inolako diskriminaziorik gabe, ez baitago aitzakiarik.

Eusko Jaurlaritzak eskaturik, 2020. urtean Ikuspegik galdeketa bat egin zuen gai honi buruz, eta, han agertu zenez, bai, azken urteotan aurrera egin dugu, baina, hala ere, ijitoen aukako jarrera oraindik ere oztopo larria da, ijito askorentzat eragozpen handia oinarritzko eskubideak bete-betean eta benetan balitzeko. Bazterkeria horren aurka jo behar dugu, eta aitzina egin gure gizartean ijito herriaren erabateko inklusioa lortzeko bidean, aniztasuna eta nor-tasuna galdu gabe; eta, besteak beste, erronka horri erantzutera dator estrategia berri hau.

Baina jarrera hori borrokatzea ez dago ijitoen esku soilik, gizartea hartu behar du beregain, sustraietatik abiatura, amaierara iritsi arte, alegia, Euskadin nahi dugun gizarte inklusibo eta kulturartekoa. Horregatik, estrategia honetan bada ekintza-lerro bat, “itun baterako oinarriak adosteko, hain zuzen ere, **Ijitoen aurkako jarrera borrokatzeko euskal gizarte-ituna**”. Baino, horretarako, adostasun zabala behar da, erakundeen artean, politikaren plazan eta gizartean.

Legegintzaren arlora etorrita, gure asmoa da **euskal lege integral bat onartzea tratu-berdintasunaren alde eta diskriminazioaren aurka**, batez ere esparru orokor bat izan dezagun gero arauak egin ahal izateko. Han izango dira printzipioak, neurriak eta baliabideak, haien bidez eskubideak bermatzeko, giza-duntasuna errespetatzeko eta ezein bazterkeriaren aurrean edonori babesia emateko.

Azkenik -eta hau ere azpimarratu nahiko nuke-, estrategia hau feminismoaren langarrak blaituta dator. Ezarri nahi ditugun aurrerapenak -baita esparru honetan ere- ez lirateke posible izango emakumeak kontuan hartu gabe, kasu honetan emakume ijitoak bereziki. Emakume ijitoen engaiamenduari eta bultzadari esker, agiri honetan bada atal bat bereziki idatzia zuzenean matxismoaren aurka eta gizon-emakumeen benetako berdintasunaren alde. Horretarako ekintza batzuk biltzeaz gainera, zehar-zehar genero-ikuspegia atal guzti-guztietan islatzen da.

Horra hor estrategia hau martxan jarri ahala hurrengo urteetan esku artean izango ditugun erronka nagusietako batzuk, baina, edonola ere, aurrera egitea egokituko zai-gu, Europa osoko erronka handien bide beretik. Eta hori lortzeko, aurrerapen hori erdiesteko, denok norabide berean arraun egin behar dugu. Arlo honetan lan egiten duten edo eskumenak dituzten eragile sozial eta instituzionalekin koordinatuta lan egin behar dugu. Lankidetza publiko-sozialik gabe ezingo dugu aitzina egin tratu-berdintasunaren alde eta bazterkeriaren aurka. Eta ijito herriak ez badu laguntzen eta parte hartzen, alferrik ibiliko gara haien aukako jarrera eraitsi nahian eta besteon aldean pairatzen dituzten urritasunak berdindu nahian. Horretarako dauzkate beren elkar-teak, *Ijito herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako kontseiluaren* barruan.

Aurkezpen hau amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet *Biltzen estrategia* diseinatzen parte hartu duten Jaurlaritzako sail guztiei, ahaleginagatik eta implikazioagatik, eta egin duten koordinazio-, dinamizazio- eta sintesi-lanagatik; baina, bereziki, ijito-elkar-teak nahi ditut eskertu, prozesu osoan egindako ahaleginagatik eta eduki duten implikazioagatik. Denok batera, lortuko ditugu gure helburuak.



Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ

Sarrera

Eusko Jaurlaritzaren politika positibo eta berariazkoak garatu diren hogeい urteetan zehar erakunde eta instituzio ijitoek arlo honetan eskuratu dituzten ikaskuntzak laburbiltzen ditu Ijito Herriarekiko hirugarren Euskal Estrategiak. Hala, oreka lortu nahi du alderik narratibo edo deskribatzaleenaren eta ekintza zehatzak batzen dituen horren artean. Oreka lortu nahi du ekintzen zehaztapenaren eta malgutasunaren artean. Oreka ijitoen aurkako jarreren kontrako borroka bezalako ardatz berriak sartzearen eta gizarte-sustapena bereziki jorratzen duten beste batzuei eustearen artean. Ondorioz, dokumentu hibrido bat da, askotariko beharrak asetzea eta horien erantzunak finkatzea helburu duena, betiere egin beharreko esku-hartzeen konplexutasuna errespetatuz.

Estrategia honen iraupena da dakarren aldaketa handietako bat, bost urtez luzatzen baita, 2026. urtera arte. Euskal esparrua Estatukoarekin, eta, batez ere, Europakoarekin bateratzea da helburua. Europa mailan, izan ere, Ijito Herriaren Berdintasun, Inklusio eta Partaidetzarako Esparru Europar bat dago, 2030. urtera bitartean aplikatze-koa, bai eta Arrazakeriaren Aurkako Europar Batasunaren Ekintza Plana ere, 2025ean amaitzen dena. Bestalde, Ijito Herriaren Berdintasun, Inklusio eta Partaidetzarako Estatuko Estrategiak 2030eko erreferentzia hori bera jasotzen du, baina bere ezarpena bi plan eragiletan banatuta, horietako lehena 2026. urtera arte luzatzen delarik. Hori dela eta, egokitzat eta bidezkotzat jo da Euskal Estrategiak ere denbora-muga hori bera jorratzea.

Hirugarren Estrategia honen iraupena 2026. urtera arte luzatzea, Eusko Legebiltzarren XII. legealdiko denbora-esparrua gainditzea eragiten duen arren, ohikoa zen Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako lehen Euskal Planetan,

bai eta beste arlo batzuetako planetan ere. Osasunerako Plan Estrategikoetan, esaterako, zortzi urteko aldia planteatzen da (2021-2028, eta, aurretik, 2013-2020).

Planteamendu honek badu bere arrazoia, gure inguruko esparruekin homologatzeko nahiaz gain: gizartearen eta erakundeen adostasun zabala duen jarduera-multzo finko baten izaera aitortzen da. Gainera, egiturazko bidegabekeria bat (kasu honetan, ijitoek pairatzen duten diskriminazioa) ezabatzeko helburuak berak beharrezko bihurtzen du plan horiek denboran iraunazartzea.

Agiri honen egitura nahiko erraza da, sekuentzia naturala jarraitzen duten hiru bloketan banatzen baita. Lehenik eta behin (I. blokea), aurrekari historikoak, beharrak eta iraganeko esku-hartzeak azaltzen dira. Ondoren, lanketa bat proposatzen da (II. blokea), eta, bertan, ikuspegiak azaleratzen dira, sailen eta erakundeen arteko gobernantza ona adosten da, eta Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Kontseiluari ematen zaion zereginia zehazten da (aurrerantzean, Ijito Herriaren Euskal Kontseilua, edo zuzenean, IHEK). Hori guztila, esku hartzeako plangintza (III. blokea) sistematikoa, kontzientea, antolatua eta ebaluagarria ezartzeko. Azkenik, eranskinetan, alderdi erabilgarri batzuk jaso dira, Euskal Estrategia lehen aipatutako esparruetan (Estatukoan nahiz Europakoan) nola sartuko den ulertzeko.

Orain arteko plan eta estrategietan erabilitakoez bestelakoak dira bai estrategiaren egitura, bai ekintzak adierazteko modua. Izan ere, ekintza horiek deskribatzeko eta jasotzeko beste modu bat bilatzeaz gain, emaitza desberdin bat aurkitu nahi da ekintza horien jarraipena, zehaztapena eta ebaluazioa gauzatzeko orduan. Estrategia honen garapenak adieraziko du, haren indarraldiaren amaieran, batetik ea eraginkorra den eta, bestetik, zein mailaraino den eraginkorra.

I. blokea. Testuingurua

1. Ahots propioa duen herria

1.1. *Hurbilketa historiko laburra*

Badakigu Euskal Herrian ijitoak egon izan direla duela 500 urte baino gehiagotik. Hala jaso du David Martín Sánchez historialariak. Lehenengo erreferentzia idatziak 1484koak dira Araban, 1510ekoak Gipuzkoan eta 1517koak Bizkaian. Data horiek, orokorrean, bat datoz beste testu europar batzuetan agertzen direnekin. Hala, Ijito Herriak garai hartan Europako hego-ekitalditik kontinentearen mendebalderantz egindako lekualdaketak islatzen dituzte.

Hala ere, ijitoen etorrera ez zen une hartara mugatu. Oraintsuago ere egon izan dira beste lekualdaketa batzuk, besteak beste hirurogeiko hamarkadan Gaztelatik eta Andaluziatik, industrializazioaren garaian, edo oraintsuago, XXI. mendean, Ekialdeko Europatik (bereziki, Errumaniatik).

Ijito Herriak EAEn duen presentzia honela deskribatu daiteke: etengabea, geratzeko asmoa duena, iraupen luzekoa eta jatorri askotakoa. Eta presentzia horrek, era berean, bazterketa-errealitate etengabea eta iraunkorra jaso du denboran zehar, bazterketa horren modua kasuan kasu aldatu den arren. Horren adibide, XIX. mendera arte indarrean egon ziren foru-xedapenetan berariaz debekatzen zen ijitoei egoitza ematea; legeek ijitoen jarrerak (ibiltaritza eta hizkuntza) eta lanbideak debekatu edo jazartzen zitzuten; tipifikazio penal esklusiboak ezartzen ziren, sarekadak antolatu eta ijitoak kanporatu. XVI. mendetik XIX. mendera bitartean, adibidez, Bizkaiko, Arabako edo Gipuzkoako lurraldean egindako Batzar Nagusien edo Berezien eta udal-akten ziozko hirurogei xedapen eta erreferentzia baino gehiago zenbatu dira ijitoen aurkako zigor, kontrol eta bazterketei buruz.

Aurrekari horiez harago, gaur egun ijitoen kontrako jarrerek agerian uzten dute diskriminazio eta desberdintasun handia dagoela ijitoen eskubideen eta gizarte-partaidetzaren eremuan.

Nolanahi ere, diskriminazioa eta bazterketa eragiten dituen errealitate sistematiko, larri eta iraunkor horrek agerian jartzen du, era berean, koexistenzia bat ere egon dela (nahiz eta neurri handi batean kultura nagusia nahitaez berenganatzeko saiakeretan oinarritu den), ijitoek ekarpen esanguratsuak egin dituztela hainbat eremutan, eta kultura-trukea etengabea izan dela. Hala, errealitate propio eta bereziak sortu dira, tartean kaloa edo *errromintxela*.

Interesgarria da ikustea nola sortu zen azken hizkera hori EAEn Ijito Herriaren egoera definitzen duen asimilazio-bazterketa-inklusio hirukote konplexuaren ondorioz. Martín de Anguizar-ek honela deskribatu zuen: “XIX. mendearen amaieran, Gipuzkoak berriz ere kanporatu zituen beren dialektoa galdu zuten eta euskaraz ezin hobeto hitz egiten zuten familia nomadak. Familia horiek Andaluziara joan behar izan zuten, baina urte batzuk geroago, herriminak jota, iparraldera itzuli ziren, euskara eta kalo arteko hizkera xelebre bat hitz egiten”.

1.2. Ijito Herriaren egungo errealitatea EAEn

Ez daukagu iturri ofizialik EAEn bizi diren ijitoen kopurua ezagutzeko, besteak besteak errolda etnikoak egitea legez ezinezkoa delako (eta ez-komenigarria). Orokorean, hamabost eta hogeい mila artean direla kalkulatzen da, baina elkartea ijito batzuek zenbateko altuagoak aipatzen dituzte. Kontuan hartzen baditugu Ramón de Marcosek eta Concepción Portellanok emandako datuak eta Ikusbideren azterketan jasotakoak (“Ijito herriaren egoera EAEn”), duela hamabost urte 13.000 pertsona inguru zirela aurreikusten zen. Hori horrela, gaur egun, lurralte-mailako presentzia, Europako Ekitalditik etorritakoak barne, horrelako zerbait litzateke:

- 4.000 Araban, Vitoria-Gasteizen kontzentratuta
- 9.000 Bizkaian, Bilbon eta haren eragin-eremuan kontzentratuta
- 4.000 Gipuzkoan, beste bi lurralteetan baino sakabanatuago

Biztanleria batez ere gaztea da, hazten dago, jaiotza-tasa altua duka, erdia baino gehiago emakumeak dira, eta bizi-itxaropena gorantz doa, nahiz eta oraindik ere euskal gizartearen batezbestekoarena baino askoz baxuagoa izan.

Gaur egun Ijito Herriaren bereizgarri diren praktika kulturalei dagokienez, aipatzekoak da ezin direla horiek guztiak orokortu, edozein talde sozialetan bezala praktikak as-kotarikoak baitira. Hala ere, ijitoek honako hau adierazi ohi dute beren buruari buruz:

- Familia zabalari esanahi handia ematen zaio, belaunaldi arteko kidez osatutako eremua den eta haurrak gizarteratzeko lehentasunezko espaziotzat jotzen den aldetik.
- Erkidegoari balioa ematen zaio, elkartasunerako, aitortzarako eta gizarte-kontrolerako espazioa den aldetik; harreman-egitura eta ohitura propioak ditu, eta adineko pertsonak dira agintari erreferenteak.
- Erresistentzia, independentzia edo askatasuna bezalako balioak nagusitzen dira.
- Komunikazioa ahozkotasunean oinarritzen da idazketan eta irakurketan baino gehiago.
- Pertsona nagusiek garrantzia dute erkidegoaren barruan, ezagutza-iturri, tradizioaren bermatzaile eta agente bitartekariak direlako.

Beste herrialde europar batzuetan ez bezala, Estatuan, eta, ondorioz, EAEn, Ijito Herriari bere hizkuntza “lapurtu” zitzaiion (erromania). Gainera, gaztelania eta euskara nahasten dituzten aldagai dialektikoeik (kaloa edo *erromintxela*) ez daukate presentzia praktikorik. Bestalde, ijitoen artean euskalduntze-maila baxua da. Belaunaldi gazteenek derrigorrezko hezkuntzan ikasi duten horretara mugatzen da askotan.

EAeko Ijito Herriaren gaitasunen artean (besteak beste egokitzapena, bat-batekotsuna, elkartasuna, sormena eta adierazpen artistikoa), nabarmentzekoa da bere auto-antolaketarako gaitasuna, kasu honetan elkartea propioak sortzeko gaitasun moduan ulertzten dena (14 erakunde daude EAEn jardueraren bat dutenak) eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, dinamiketan parte hartzeko gaitasuna, besteak beste Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Kontseiluan (11 erakunde) edo zerbitzu desberdinak emateko orduan. Elkartea horiek, ikuspegi eta planteamendu desberdinakoa, Ijito Herriak sentitzen duen horren adierazpen antolatutzat jo daitezke.

1.3. Diskriminazioa eta sentitutako beharrak

Duela urte batzuetatik, bai giza eskubideen gaineko eskumena duten erakunde europarretan, bai akademian edo elkarte ijitoetan, ijitoen aurkako jarrerak identifikatu eta ikertzeko lana sakondu da, “arraismo-modu zehatz, arraza-nagusitasunean oinarritutako ideologia, deshumanizazioa eta arrazakeria instituzionala eragiten dituelako, diskriminazio historikoan oinarritura, hainbat bitartekoren bidez, besteak beste indarkeria, beldurraren diskurtsoa, esplotazioa eta diskriminazioa, bere modurik nabarmenenean” (Arrazakeriaren eta Intolerantziaren Aurkako Europako Batzordearen Politika Orokorraren Gomendioa, 13. zenbakikoa, ijitoen aurkako jarreren eta ijitoen/erromanien aurkako diskriminazioen aurkako borrokari buruzkoa). Valeriu Nicolaeren hitzetan (Ijito Herriaren Gaietarako Europako Kontseiluko idazkari nagusiaren ordezkari berezia eta aktibista ijitoa): “politikaren, akademiaren eta gizarte zibilaren munduko diskurtsoak eta ordezkaritzak, segregazioa, deshumanizazioa, estigmatizazioa, gizarte-erasoa eta bazterketa sozio-ekonomikoa dira ijitoen aurkako jarrerak zabaltseko beste modu batzuk”.

Gizarte-bazterketaren eta diskriminazioaren egoera nekez bereiz daitezke, elkarren artean lotura handia baitute. Horren adibide, har dezagun, besteak beste, gizartean oraindik ere ijitoen gainean errrotuta dagoen iruditeria aztertzen duen ekoizpen zientifiko oparo (Teresa San Román, esaterako). Horren arabera, ijitoak bestetzat jotzen dira, hots, beste exotiko, folkloriko, modernitatetik aparteko, bazterreko eta hautabidez pobretzat. Bada, irudi eta narrazio horiek eragina dute ijitoen bizitzetan. Kasu batzuetan, jarraituko dituzten bideak eta mugak zehazten dituzte. Ideia horiek emakume eta gizon ijitoei buruzkoak badira ere, sarritan generoaren araberako bereizketak agertzen dira, jatorri etnikoko diskriminazioa uztartu egiten baita beste era batzuetako diskriminazioarekin, generoaren ondoriozkoarekin esaterako.

Hori horrela, eta kontuan hartuta ijitoen aurkako jarrerek Ijito Herria jazarri eta diskriminatzeko faktore bat osatzen dutela, “generoaren zioz gertatzen diren ijitoen aurkako jarrerak” kontzeptuaz hitz egin dezakegu, ikuspegi interseksionaletik, emakume ijitoen bzipen eta behar espezifikoei bereziki erreparatuta. Generoaren zioz gertatzen diren ijitoen aurkako jarrerak, hain zuzen ere, emakume ijitoen aurka egiten den arrazismo edo diskriminazio zehatzak dira. Ondorioz, ijitoen aurkako jarrerei ikuspegi feministatik heldu behar zaie. Izan ere, emakume ijitoek bizi dituzten indarkeria transistemikoak salatu eta kritikoki aztertzen dituen kategoria hori ezinbestekoa da emakume ijitoekin eta ijitoentzako euskal estrategia gauzatzeko orduan.

Beste egile batzuek, tartean Pastora Filigranak, berariaz nabarmendu dute ijitoa ez den begirada negatibo horren aurrean ikuspegi ijito positibo bat dagoela, Ijito Herriaren erresilientziarako gaitasuna balioesten duena, kontuan hartuta ijitoen aurkako 250 agindu eta xedapen baino gehiago eman zirela 1499tik 1978ra. Ijitoak baztertu zituzten, bai, baina, hala ere, gai izan ziren beren buruak antolatzeko, talde barruan babes eta elkartasuneko sareak josteko, eta ijitoen aurkako praktika eta lege horien guztien ziozko zaurgarritasun-egoerei aurre egiteko, beren nortasuna galdu gabe.

Ijitoen aurkako jarrerak gure gizartean egiturazko elementu historikoa dira. Ondorioz, ijitoen erakundeek eta ijitoen aldeko erakundeek beren beharrei buruz hitz egiten dutenean, kezka ugari eta askotarikoak aipatzen dituzte, eremu ia guztiak barne hartuz. Hau da, behar horiek orokorrak eta zehatzak dira, eta, horien barruan, hezkuntza, osasuna, etxebizitza, enplegua, gizarteratzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, kultura eta bestelako alderdiak jasotzen dira.

Hala ere, behar horien azterketan nabarmentzeakoak diren hiru elementu handi daude. **Lehena** diskriminazioaren pertzepzio eta salaketa handiari buruzkoa da. Elementu honek lotura zuzena duka **tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren** politikekin, Estrategia honetan beren-beregi aztertuko den bezala.

Duela gutxi, Ikuspegি Immigracioaren Euskal Behatokiak –bere lan-eremuan bes-te errealitate sozial batzuk sartzen hasi da, besteak beste ijitoena edo LGTBI kolektiboarena-, *EAeko diskriminazioari eta aniztasunari buruzko txostena* argitaratu zuen. Bertan, azterketa-eremu guzietan gehien errepikatzen zen zeharkako alderdi gisa honako hau jasotzen zuen: ijitoa izatearen ondoriozko diskriminazioa. Datuetan, diskriminazio hori nabarmen antzematen da enplegua eskuratzeko orduan (% 42,4), etxebizitza bat eskuratzeko orduan (% 46) eta legearen aurrean izapideak egiteko orduan (% 15,6). Gainera, hauxe da euskal biztanleen artean bizikidetzarako “deserosotasun” gehien pizten duen kolektiboa: elkarrizketatutako pertsonen % 50 deseroso sentituko litzateke bere auzoan ijitoak biziko balira. Atzerriko pertsonek edo musulmanek sortzen duten deserosotasuna baino nabarmen altuagoa da datu hori. Are gehiago, txostenean aztertutako kolektiboen artean, ijitoekin izaten dira adiskidetasun-harreman gutxien: % 38,3k soilik du adiskidetasunean oinarritutako harremanen bat. Hala, EAEn intolerantzia handiena jasaten duen kolektiboa da.

Bigarrena gizarte-ongizatearen funtsezko elementuei buruzkoa da, hiru eremu jorratzen dituelarik bereziki: hezkuntza, osasuna eta enplegua. Hirukote horren gainean finkatu dira orain arte Ijito Herria **gizarteratzeko** politikak, bai Europan, bai Estatuan eta EAEn.

Hala, hezkuntza-arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Egoerari buruzko Txostenean jasotako datuen arabera, ikasketarik gabeko ijitoen ehunekoa % 35,4koa zen eta % 7,2k soilik zituen bigarren hezkuntzako ikasketak amaituta.

Laneratzeko orduan ere erronka handiak gainditu behar ditu Ijito Herriak. Badago txosten bat, Secretariado Gitano Fundazioak egindakoa: *Espainian biztanleria ijitoak enpleguan eta pobrezian duen egoerari buruzko azterketa alderatua 2018*. Txosten horren arabera, ijitoen langabezia-tasa 2018an % 52koa zen, tasa orokorra % 14,4koa izan arren. Langabezia-tasa horrek bereziki eragiten die emakume ijitoei (% 60,4) eta gazteei (% 57,7).

Txosten honetan, gainera, egoera horretan eragin zuzena duten hainbat faktore aipatzen dira. Ijitoen hezkuntza-maila baxua –batez ere emakumeei eragiten diena– da Ijito Herria gainerako biztanleengandik urruntzen duen desberdintasun-arrakalaren zati handi baten eta emakume eta gizon ijitoen arteko laneratzeko desberdintasunen arduradun nagusia. Horrez gain, badago beste oztopo erantsi bat: familiaren erantzukizunak (neurri handi batean emakumeei dagozkienak, 30 urtetik beherako adingabeei sarri).

Gainera, EAEn kasuan, Ikuspegি Immigracioaren Euskal Behatokiak egindako *Dis-kriminazioa eta aniztasuna EAEn: ikuspegiak, eremuak eta kolektiboak* izeneko azterlanaren arabera, elkarrizketatutako 10 pertsonatik 4rentzat ijitoa izatea diskriminazio-iturria da lanpostu bat eskuratzeko orduan (% 40,2) eta are gehiago erantzukizuna duen lanpostu bat eskuratzeko orduan (% 40,8).

Hirugarren eta azken **elementua** Ijito Herriaren **praktika kultural propioei** buruzkoa da. Segregazioa eta behartutako asimilazionismoa uztartzen zituzten politikak mendeetan ezartzearen ondorioz, ijito askoren artean badago beldur bat, nahiko justifikatua: gizarteratzeko testuinguru berriak –eta, are gehiago, globalizatutako testuinguruak– ez ote duen praktika kulturalak desagertzea eragingo. Hori horrela, beharrezko da Estrategia honetan ijitoen nortasun propioa baloratuko duten ekintzak

zehaztea, kontuan hartuta Ijito Herriaren praktika kulturalak euskaldun moduan definitzten dugun horren parte ere badirela.

Horrekin lotuta, Ikusbidek 2006an egindako azterketaren arabera, elkarritzetutako ijitoen % 93,9k adierazi zuten ohitura propioak dituen kultura bat dutela eta % 44,1ek sentitzen zuten kultura hori desagertzeko arriskuan zegoela, aitorpenik ez duelako. Horrenbestez, garrantzitsua da ijito gazteen zereginaz azpimarratzea, funtsezkoak baitira gai horiek belaunaldiz belaunaldi jorratzeko.

1.4. Covid-19 pandemiaren eragina

Covid-19aren ziozko pandemiak osasun-arloan izan du eragin gehien. Ijito Herriak, noski, gaixotasun horren eraginak jasan ditu, ziurgabetasuna, zaintzen igoera, mina eta heriotza eragin baititu denen artean. Gainera, kontuan hartuta Ijito Herriaren artean erikortasunak (zehazki, arnasketa eta zirkulazioko arazoak eta obesitatea) preseenteago daudela batez besteko biztanleriaren artean baino, koronabirus berriaren eragina altua izan da. Halaxe egiaztatu da, nahiz eta Osasun Sailak, Biltzenekin lankidetzan, hainbat egintza gauzatu dituen (informazioa eman eta prebenitezkoak), ijitoek gaixotasunaren aurrean duten esposizioa murrizte aldera.

Horrekin lotuta, eta bereziki Vitoria-Gasteiz inguruan, Ijito Herria gorroto-diskurtsoen jomuga izan da, batez ere azken urteetan. Halaxe egiaztatzen dute azterketa eta txosten ugarik, bai eta EAEko erakunde ijitoek ere. Hori guztia jasotzen du Biltzeneko talde teknikoak egindako eta Eraberean Sarearen 2020ko memorian argitaratutako artikulu honek: “Diskriminazioa eta sindemia. Pertsona migratuen, Ijito Herriaren eta LGTBI kolektiboaren gaineko desberdintasunari eta diskriminazioari buruzko iruzkinak, COVID-19aren pandemiaren testuinguruan”.

Artikulu horretan, pandemian zehar familia ijitoetan oso presente dagoen beste erreallitate batirik erreparatzen zaio: hezkuntza-arloko eten digitalari, hain zuzen ere. Maila sozioekonomiko baxuko besta talde sozial batzuetan bezala, eskolak telematikoki jarraitu eta aprobetxatu dituztenen indizeak askoz baxuagoak izan dira ijitoen artean gizarteko gainerako taldeen artean baino.

Testuinguru horretan, nabarmentzekoa da emakume ijitoek (horiek baitira familia-erremuan adingabeak eta adinekoak zaintzeko ardura handiena dutenak) gainkarga handia jasan dutela. Izan ere, urrutiko hezkuntzaren zeregin berriei aurre egin behar izan diete, eta, horretarako, zaitasun gehigarri garrantzitsuak aurkitu dituzte, hezkuntza-mailan eta euskararen ezagutzan dituzten gabeziengandik.

Bestalde, enpleguan, ijitoek garatzen dituzten bi jarduera ekonomiko nagusiek (salmenta ibiltaria eta hondakin metalikoen birziklapena) bereziki jasan dituzte pandemia-garaian ezarritako mugen eta kontsumo-ohitura orokorretan egondako aldaketen zi-zoko eraginak. Itxura guztien arabera, Ijito Herriaren egoera, bai lanean bai gizartean, prekarioagoa da pandemia aurretik baino. Edonola ere, halaxe dela egiaztatu beharko da ikerketa edo azterlan egokien bidez.

Azkenik, ijitoen elkartea eta ijitoen aldeko elkartea ere bereziki ahul geratu dira pandemiaren ondorioz. Erakunde hauek zaitasun handiak biziutzen ari dira, ekonomiako eta laneko prekarietatea handiagoa denez erkidegoen egoera eskasagoa delako, gaixotasunak heriotzak eragin dituelako besteak beste EAEko ijito erreferenteen artean, eta laguntza eta zerbitzu berriak eskatzen zaizkielako lehendik ere baliabide mugatuak zitzuzten erakundeei.

2. Abiapuntua

2.1. Aurrekariak

Eusko Jaurlaritzak Ijito Herriari berariaz zuzendutako politikak garatzen ditu 2003-2004tik. Horren adibide dira Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Kontseiluaren eraketa eta Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako 2004-2007 aldirako I. Plana. Bigarren plan bat ere egon zen, 2008-2012 aldirako, eta 2013az geroztik, legealdi bakoitzeko estrategiak egin dira. 2020. urterako indarrean egon da azkena, eta 2021. urtearen amaierara arte luzatu da.

Plan horiek, gai honetako euskal politiken esparruak izan arren, osatu egiten ziren sektore-izaerako beste plan batzuekin, hezkuntza, etxebizitza edo gizarteratzea bezalako gaietan, eta Foru Aldundiek ezarritakoekin, zaurgarritasun-egoeran dauden familiiei arreta emateko eremuan.

I. Plana	2004-2007
II. Plana	2008-2011
	2012-2013 luzapena
I. Estrategia	2014-2017
II. Estrategia	2017-2020
	2021 luzapena
III. Estrategia	2022-2026

2.2. Ikaskuntzak

Plan eta estrategia horiek garatzean eta ebaluatzean, hainbat ikaskuntza atera dira administrazioen eta gizarte-erakundeen artean. Ikaskuntza horiek, zerbait kasutan, ez dira Estatu mailan eta Europan atera direnen oso bestelakoak.

Lehena eremu horretako politikak antolatu eta planifikatzeko tresnarekin lotuta dago. Planaren formatua ikusita (zeinak ekintza zehatz eta zatitu asko baititu), estrategiaren formatua hautatu da, gehiago erreparatzen dielako helburuei eta gehiago jorratzen diuelako jarduera-ildoak. Gainera, egiaztatu denez, intentsitate handiko ekintza estrategiko gutxitan lan egiteak eragin handiagoa dauka irismen gutxioko ekintza askoren garapen sakabanatuak baino.

Halaber, Estrategia ez da tresna bakarra Ijito Herriaren inklusioa eta partaidetza sustatzen duten ekintzak eta jarduera-ildoak bultzatzeko; aitzitik, agiri honetan jasotakoak bezain esanguratsuak diren beste ekimen batzuk aurreikus daitezke beste sail batzuen plan zehatzetan edo sektorialetan. Hala ere, konpromiso instituzionalen eta politika publikoen mapa argitzeko, horiek Estrategian bertan aipatzea erabilgarria da, baldin eta harreman zuzena edo berariazkoa badute (gehiago edo gutxiago) Ijito Herriarekin.

Era berean, Ijito Herriaren Euskal Kontseiluan parte hartzen duten erakundeek badute kezka komun bat: ekintzetan adierazleen oinarrizko sistema bat sartzea, ondoren ebaluazioa egin ahal izateko.

Azkenik, Estrategia honetan jasotakoa da, neurri handi batean, Ijito Herriaren Kontseilua dinamizatzen duen elementua, erreferentzia egokia ezartzen baitu bai haren jarduera planifikatzeko, bai ijitoen gizarte-erakundeek eta ijitoen aldeko gizarte-era-kundeek administrazio publikoekiko harremanaren gainean duten interesa bideratzeko. Sarritan, ekintzak eta jarduera-ildoak arrakastatsuak izan daitezen, funtsezkoa da berariaz implikatzea erakunde desberdinak horien diseinuan eta ezarpenean. Horren adibide da EAEn, orokorrean, gizarteratze-arlorako daukagun lankidetza publiko-sozialaren eredu mistoa.

3. Metodología

Estrategia hau egiteko lanetan, lau une bereiz daitezke. Horietako lehenengoan Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzarekin eta Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetza Sailburuordetzarekin egiaztu dira estrategiaren orientazio orokorrak, bai eta horiek Eusko Jaurlaritzako beste plangintza-agiri batzuekin (*soft-law*) duten bateragarritasuna ere, besteak beste honako hauekin: bizikidetzarako, giza eskubi-deetarako eta aniztasunerako 2024 Udaberri Plana, Gobernuaren sektore-estrategiak eta -planak, 2030 Agendaren lehentasunen euskal programa, edo 2020-2024 Gobernu Programa, “Euskadi martxan” izenekoa.

Oinarri horren gainean, eta bigarren une batean, Biltzeneko talde teknikoak dokumentazio-lana egin du honako hauek jorratzeko: 2030eko esparru europarra, Estatuko estrategia, beste autonomia-erkidego batzuetako eremu horretako planak, bibliografia espezializatua eta EAko ijitoen elkarteez eta ijitoen aldeko elkarteez osatutako sare sozialaren dokumentazioa.

Ondoren, esparru teorikoa zehaztu da, eta aurrez identifikatu dira hainbat ekintza, sektore-eremuen arabera. Halaber, sekuentzialki egiaztu dira Eusko Jaurlaritzako sail desberdinako ordezkari teknikoekin, ijitoen erakundeekin eta ijitoen aldeko erakundeekin, hots, Ijito Herriaren Euskal Kontseiluaren batzordeetan parte hartzen duten horiekin. Hori horrela, honako agente hauekin hitz egin da:

Agente institucionalak	Ijito Herriaren Euskal Kontseilua
Ertzaintza (Idazkaritza Nagusia)	Hezkuntza Batzordea
Lanbide	Osasun Batzordea
Lurralde Plangintza, Etxebitzta eta Garraio Saila (Etxebitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza)	Etxebitzta Batzordea Ijitoen Elkarteen Batzordea Emakume Ijitoen Batzordea Batzorde Iraunkorra
Hezkuntza Saila (Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza)	
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (Kultura Sustatzeko Zuzendaritza)	
Osasun Saila (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza)	
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikako Saila (Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritza, Ikuspegi eta Emakunde)	

Emakume Ijitoen Batzordearen kasuan –Udaberri 2024an ezarritako aginduari jarrai-kiz, zeinaren arabera kontuz zaindu behar baita emakume ijitoek estrategia hau egiteko orduan benetan parte hartzen dutela-, generoaren gainean aditua den kanpoko aholkulari ijito baten laguntza eduki da, elkarteeek aukeratutakoa.

Azkenik, ekintzetan implikatutako sailekin egiaztatu da Batzordearen definizioarekin ados daudela, bere sentitzen dutela eta haren lidergotzan parte hartuko dutela. Prozesu honetan eztabaida eta partaidetza handia egon da, eta haren emaitza agiri honetan bildu eta laburbildu nahi izan da. Agiria, zehazki, Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Kontseiluaren 2022ko urtarrilaren 20ko osoko bilkuran balioetsi da.



II. blokea. Lanketa

4. Esku hartzeko ikuspegiak

Lehen ere ikusi ahal izan dugun bezala, errealtitate konplexua da, diskriminazioa eta gizarte-bazterketa egiturazkoak baitira. Ondorioz, hainbat ekintza antolatu behar dira, sektore-eremu desberdinetan eragina izango dutenak, esku hartzeko ikuspegi desberdinak modu koherentean jorratuz. Erreferentzia nagusitzat honako hauek hartu dira:

A. Enfoque comunitario. Diferentes organismos internacionales de desarrollo lo A.

Erkidego-mailako ikuspegia. Garapeneko nazioarteko erakundeen esanetan, era-kundek erkidegoekin (kasu honetan, ijitoen erkidegoarekin) egin beharreko lana orientatzeko eredu metodologikoa da. Zehatzago esanda, erkidego-mailako ikuspegia tresna erabilgarria da, esku-hartze sozialeko politikak, programak eta proiektuak diseinatu, ezarri, jarraipena egin eta evaluatzeko. Erkidego-mailako ikuspegia aplikatzen bada, erakundeek politika publiko jakin baten hartzaleekin batera lan egiteko beharra onartzen da, hartzale horiei hainbat gaitasun, trebetasun eta balia-bide aitortuz erkidego horrek bere helburuak lor ditzan. Ikuspegi hori aplikatzeko, hainbat alderdi hartu behar dira kontuan, besteak beste ezaugarri kulturalak, gene-ro-harremanak, legezko esparrua edo identifikatutako beharrak.

Ikuspegi hori oso presente dago Estrategia honetan, bai Ijito Herriaren Euskal Kontseiluaren partaidetzarekin lotutako kontzepzioan, bai baterako lanean, ijitoen erakundeak eta ijitoen aldeko erakundeak lotzen baititu proposatzen diren ekintza ia guztien garapenean.

B. Eskubideen ikuspegia. Kontzeptu-esparru honek giza eskubideen printzipioak, arauak eta estandarrak txertatzen ditu politika, programa eta zerbitzu publikoetan. Horretarako, eskubideen titularrak eta eskubide horien egikaritza sustatu behar dutenak identifikatzen ditu, eskubide horien titularren gaitasuna indartzeko (horiek aldarrikatze aldera), bai eta eskari horiek asetzeko gaitasuna indartzeko ere horiei erantzuteko ardura duten erakundeen aldetik. Era horretako prozesuetan funtsezkoak dira pertsonen eta erkidegoen partaidetzaren eta ahalduntzearen printzipioak, aldaketa sustatzeaz gain beren eskubideak baliatzen eta beren betebeharrok betetzen laguntzen baitute.

Estrategia honetako ekintzen definizioa bera lotuta dago, une askotan, eskubideak euskal herritar guztien baldintza berberetan baliatzeko eta eskuratzeko aukera bermatzeko premiarekin. Horrek, hala ere, ez du esan nahi Ijito Herriaren berezitasun kulturala eta nortasuna bazter utzi behar direnik, bereziki hezkuntza-sistema, osasuna, etxebizitza eta gizarteratzea bezalako gaietan.

C. Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza. Eusko Jaurlaritzak Eraberean Sarearen esparruan argitaratu zuen gai horri buruzko oinarrizko gida. Horren arabera, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza, zuzenbideko estatu demokratikoaren oinarrizko printzipioak izateaz gain, justizian eta oinarrizko eskubideetan nahitaez bermatu beharreko printzipioak dira. Printzipio hori era egokian antolatzen bada, eragina izango du kohesio sozial eta garapen ekonomiko jasangarria lortzen orduan, jarduera publikoaren legitimitatea areagotu ahal. Kasu honetan, Ijito Herriaren berezitasun sozialari erantzuteko, printzipio hori zeharka txertatuko duten politika publikoak behar dira, ekintza publikoen eraginkortasuna, kalitatea, gardentasuna, zuzentasuna eta ardura indartzeko.

Hori dela eta, hirugarren Estrategia honek aurrekoen aldean duen aurrerapen nagusietako bat honako hau da: tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza elementu nagusi bihurtzen dira, benetako berdintasunaren sektore-eremu espezifiko bat jasoz, ekintza ugari eta askotarikoen bidez.

D. Partaidetza eta elkarritzeta zibila. Aurreko ikuspegiek bat, elkarritzeta zibilaren arabera erakunde eta elkarteko zibilek, eta horien bidez, esku-hartze sozialen hartzale eta protagonista diren pertsona eta erkidegoek eskubidea dute beren beharren erantzunetan eta beraiei dagozkienei politika publikoetan parte hartzeko, fase guztietai, baita fase betearazlean ere. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak euskal erakunde publikoen jarduera-printzipio hori jasotzen du.

Era berean, eta Ijito Herriak Dekretu bidez araututako partaidetza-organo bat daukanet, Estrategia honen esparruan organo hori da oinarrizko zutabeetako bat, bai hora diseinatzeko, bai bertan proposatutako ekintzak garatzeko. Horrenbestez, horietako bakoitzean berariaz azaltzen da Kontseilu horri dagon kion zeregin edo funtzioa.

E. Kulturarteko ikuspegia. Eusko Jaurlaritzak beregain hartutako beste agiri batzuetan, esaterako Herritaratasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planean (eta laster VI. Planean), ulertzen da ikuspegi horrek aniztasuna era positibo eta inklusiboan kudeatzea dakarrela, aniztasuna arlo publikoan aitortu eta kokatzea sustatzen duten printzipioetan eta tresnetan oinarrituta, bai instituzioetatik, bai gizarte-erakunde desberdin netatik. Aniztasuna kontuan hartzen duen kudeaketari ekiteko, desberdintasunak aitortu eta errespetatu behar dira, eta, era berean, elkarrengana, elkarritzeta kritikoa eta elkarrekintza bilatu oinarritzko balio partekatu batzuetan oinarrituta, besteak beste giza eskubideetan, demokrazian eta zuzenbide-estatuan. Ikuspegi honen funtsezko alderdietako bat sortutako kaltearen eta diskriminazioaren aurkako borroka aktiboa da, pertsona guztiengaukera-berdin tasuna bermatuz.

Estrategia honetan ahalegin berezia egin da kulturartekotasunaren oinarrizko hiru printzipiori erantzuteko: desberdintasuna, berdintasuna eta elkarrekintza positiboa. Filosofia hori ageri da jasotako ekintza guztietai, eta, bereziki, eremu sektorial zehatz bat eraikitzen du praktika kulturaletan eta nortasun propioan oinarrituta

Era berean, zeharkako beste bi ikuspegi daude, Estrategia osoa zeharkatzen dutenak, esku-hartzearen logikan nahiz eremu sektorialetako bakoitzean eraginik. Honako hauek dira:

I. Genero-ikuspegia. Horren bidez, emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan ezberdinak modu sistematikoan hartzen dira aintzat, eta, horretarako, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduera zehatzak txertatzen dira politika eta ekintza guztietai, maila guztietai, horien plangintza, egikaritze eta ebaluazioko fase guztietai. Hala ezartzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak. Era berean, generoaren araberako azterketa hauek bereziki ikertzen dute gizonek eta emakumeek, gizarte-eragile gisa, erabil tzen dituzten hainbat era gizartean ezarritako rolak, harremanak eta prozesuak aldatzen parte hartzeko, banakako eta taldeko interesek motibatuta.

Generoaren ikuspegia horren arabera, eremu sektorial zehatz bat sortu nahi da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ekintzakin, eta, gainera, zeharka sartuz gainerako eremu guztietan, ekintza zehatzak jasoz edo ekintza orokoren edukian eraginez.

II. Intersekzionalitatea eta, bereziki, belaunaldiartekotasuna kontuan hartzen dituen ikuspegia. Intersekzionalitatea fenomeno bat ez ezik tresna bat ere badela ulertzan dugu. Fenomenoa da, pertsona bakoitzak kategoria sozial desberdinetako kide izateagatik jasaten duen jazarpenaren edo daukan pribilegioaren errealtitatea islatzen duelako. Eta, era berean, tresna bat da, diskriminazio ugari horiek jorratuko dituzten azterketak, lan juridikoak eta politikak egiteko, eta, aldi berean, nortasun desberdinak eskubideak eta aukerak eskuratzeko orduan duten eragina ulertzeko aukera ematen baitigu.

Kasu honetan, Ijito Herria da Euskal Autonomia Erkidegoan talde diskriminatuak bat, baina ez modu homogeneoan. Talde eta pertsona ijito batzuek, izan ere, diskriminazio espezifikoa jasaten dute, aldi berean hainbat baldintza edo ezaugarri betetzen dituztelako. Emakume ijitoa izatea (urreko ikuspegiak zehazki identifikatua), aniztasun funtzionala edukitzea, eta, batez ere, adin jakin bat edukitzea bereziki kontuan hartu beharreko errealtitateak dira. Horrenbestez, Estrategia honetan hainbat ekintza propio jaso nahi dira, gazztekin eta pertsona nagusiekin lotutako egoerak jorratzeko.

Hau da, elkarren artean koherenzia eta lotura handia duten ikuspegia eta metodologien multzo bat da, zeinak esparru oso bat eratzen baitu diskriminazio eta gizarte-bazterketa larriari eta errealtitate konplexuari erantzun egokia emateko asmoz.

5. Kontseiluaren zereginak

289/2003 Dekretuaren bidez sortu eta arautu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua. Lege-testu horren arabera, aholkularitza-organo plurala da, ondoko xedea duena: ijito populazioarekiko erabateko politika aktiboa garatzeko laguntza, Ijito Herriaren erabateko sustapenean oinarrituta. Kontseiluan, gobernuak kanpoko erakundeek, ijitoen elkarrekeek eta ijitoen aldeko elkarteeek hartzen dute parte, euskal administrazio publikoekin batera. Hau da, gizarte-eragileen, ijitoen eta ijitoen aldeko elkarteko eta taldeen, erakundeen eta administrazio publikoen arteko gogoeta eta koordinaziorako gunea izan nahi du, lan eraginkorragoa lortzeko Ijito Herriaren erabateko sustapenean eta praktika kulturaletan konprometituriko alderdi guztien artean.

Bere lana hainbat batzorde sektorialetan antolatzen da. Gaur egun, honako hauek daude martxan: Hezkuntza Batzordea, Osasun Batzordea, Etxebizitza Batzordea, Emakume Ijitoen Batzordea, eta Elkarte Ijitoen Batzordea, Ijito Herriaren nortasunaren eta praktika kulturalen alderdiak jorratzen dituena. Aspalditik, edukiaren zati handi bat Estrategian bertan sustatzen da, azken hori bihurturik, sarritan, batzorde desberdinetan lantzen diren gaiak elikatzen dituena. Ondorioz, Estrategia hau egiteko, metodologiaren atalean adierazi den bezala, Kontseiluan bertan identifikatu dira Kontseiluari garrantzia ematen dioten ekintzak, jarduera-ildoak, helburuak eta beharrak.

XII. legealdirako, Estrategiaren eta Kontseiluaren arteko lotura sendo horrekin jarraitu nahi da. Are gehiago, Estrategiaren jarraipena egiteko eta garapena ebaluatzeko tresna nagusia da Kontseilua. Era berean, Estrategian jasotzen diren ekintzetako askotan Kontseilua bera, haren batzordeak eta gizarte-erakunde partaideak jotzen dira eragile sustatzailetzat.

6. Koherenzia eta gobernantza

2022-2026 Estrategiak argi eta garbi bat etorri eta bat egin nahi du goragoko lurrarde-eremuetako (estatuko eta Europako) tresnekin, bai eta Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuetako plan eta estrategia sektorial batzuekin ere, Estrategia bera sustatze-ko eragile nagusi gisa. Era berean, lotura batzuk zabalik uzten ditu EAEn ijitoen presentzia handia duten udalen eta Foru Aldundien partaideztzarako eta lankidetzarako. Hartara, euskal erakundeentzat erreferentea izango den agiri bat lortu nahi da, maila altuagoko beste batzuekin homologatzeko modukoa.

Europa mailan, erreferentzia saihestezin bat dago: Ijito Herriaren berdintasun, inklusio eta partaideztzarako 2030eko esparru estrategiko europarra. Aurrekoan ez bezala –2020ra arte indarrean—, zeina gizarte-kohesioko planekin lotzen baitzen, 2030erako esparru berri honetan gizarte-inklusioaren ikuspegia bete-betean lantzen da, arrazismoaren aurkako estrategiarekin lotzen da, eta berariaz jasotzen du tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren gaineko osagai garrantzitsua. Ikuspegi-aldaaketa hori gertatu da, hain zuzen ere, aurrekoan ez zelako nahikoa eta Ijito Herriak jasaten duen arrazakeria egiturazko arazo bat delako, “ijitoen aurkako jarreretan” oinarritzen dena, gorago ere azaldu den bezala.

Erakunde batzuk pertsona eta familia ijitoentzako plan zehatzen ordez zaurgarritasuna jorratzen duten plan orokorrak garatzen ari dira. Horrek interpretazio anibalenteak eragiten ditu, nolabait talka egiten dutenak Europatik datozen bultzadarekin eta konpromisoarekin. Hala, batzuetan, *mainstreaming* eta *targeting* politiken arteko tentsioak ezkutatu egin du Ijito Herriak jasaten duen bidegabekeria soziala aitortzeko orduan dagoen erresistentzia, bai eta egoera hori konpentsatzeko gauzatu beharreko ekintzak ere.

Hala ere, Europarekin bat eginez, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetza Sailburuordetzak 2024 Udaberri Plana aurreratu du, ijitoen kontrako jarrerei giza eskubideen ikuspegitik heltzeko. Era berean, bat egiten du Euskadi Basque Country 2030 Agendarekin, Nazio Batuen garapen jasangarriaren alde egiten duen ahaleginaren esparruan.

Horrenbestez, azaldutakoaren ondorioz, Ijito Herriaren gaineko politiken eremuko eskumena gizarte-politikatik giza eskubideetara pasatu izana ez da administrazioko birkokapen huts bat, baizik eta paradigma-aldaaketaren hasiera bat, euskal erakundeek errealitate honi erantzuteko bideratzen dituzten politikak ulertzeko moduan.

Hori dela eta, aldaketa kualitatibo nabarmena eta esanguratsua da, horren arabera Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia 2022-2026 –zeinak bat egin behar baitu esparru euro-parrarekin eta Udaberri 2024 planarekin— berez baita inflexio-puntu bat.

Hori horrela, 2022-2026 Estrategiaren helburu nagusia honako hau izango da: tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren osagaia irmoki sartzeak eragiten duen

paradigma-aldaaketa zehaztea, gizarte-politiken eremuko jarduera propioei eutsi ahal. Ondorioz, estrategia hibridoa izan behar da.

Ikuspegi hibrido hori guztiz bat dator Udaberri 2024 Planak 13. jarduera-ildoan adierazten duenarekin. Horren arabera, izan ere, positiboki kudeatu behar dira bai kultura, arraza eta etniaren araberako aniztasuna, bai diskriminazioaren aurkako borroka. Zehazki, 13.1. epigrafean (Ijito Herriaren erabateko sustapena eta partaidetza soziala) honako hau ezartzen da Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia 2022-2026 berria egiteko helburutzat:

“Diskriminazio horri [ijitoen aurkako jarrerak] aurre egitea eta Ijito Herria gure gizartean guztiz integratzeko bidean aurrera egitea, betiere ijitoen aniztasuna errespetatuz”.

Gainera, Estrategia egiteko prozedurarekin lotuta, kontuan hartu beharrekoak dira honako hauek:

“Estrategia diseinatzeko, Ijito Herriak parte hartuko duela ziurtatu beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluan ordezkatutako elkarrekin bitartez”.

“Arreta berezia jarriko da emakume eta gazte ijitoen parte-hartzea ziurtatzeko, bai diseinuan bai ezarpenean, prozesu osoaren eragile nagusi direnez”.

Ijito Herriak Estrategia honetan duen partaidetzari dagokionez, partaidetza horren berri eman da metodologiari buruzko hirugarren atalean; partaidetza horri heltzeko ikuspegiak azaldu dira laugarren artean, eta Ijito Herriaren Euskal Kontseiluak Estrategia garatu, jarraipena egin eta ebaluatzen orduan duen zeregina zehaztu da bosgarrenean.

Era berean, emakumeek duten partaidetzari heltzeko, zeregin berezia eman zaio Emakume Ijitoen Batzordeari, bai berdintasunaren eremu sektorial zehatz bateko ekin-tzak identifikatzeko orduan, bai genero-ikuspegia gainerako eremuetan zeharkako elementu bihurtzeko orduan, Estrategian txertatutako eta laugarren atalean berariaz aipatutako genero-ikuspegiarekin bat.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako beste batzuek ere aipamen berezia merezi dute. Hona hemen:

- Eskola inklusiboa garatzeko 2019-2022ko esparru-plana, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena.
- Osasunaren 2021-2028 Plan Estrategikoa eta Osasun Sailaren 2021-2024ko Esparru Estrategikoa.
- Etxebitzaren Gida Plana 2021-2023, Lurralde Plangintza, Etxebitzitzeta eta Gerraia Saila egiten ari dena.
- Gizarteratzeko IV. Euskal Plana (2017-2021), Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarena.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana (2018-2021), sail berdinarena.

Azkenik, gobernantzari jarraikiz, eta kontuan hartuta zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboen aniztasun kulturala, bizikidetza, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza edo gizarteratzea kudeatzeko orduan eragina duten foru-aldundien edo udalen planak, ondoren erakundeen arteko elkarritzetarako proze-

su bat ireki nahi da, Estrategia honen eta plan horien arteko bateragarritasuna, lankidetzak eta sinergiak jorratze aldera. Azken helburua hemen jasotako ekintza eta konpromiso osagarriak (eranskin gisa atxikitakoak) jasoko dituen agiri bat egitea izango da.



III. blokea. Esku-hartzea

7. Printzipioak eta helburuak

7.1. Ijito Herria gizarteratzeko oinarrizko printzipioak

2022-2026 Estrategia berria egitean kontuan hartu behar dira Ijito Herria gizarteratzeko oinarrizko printzipo komunak, metatutako esperientziaren arabera, EBk horiexek gomendatzen baitizkie estatu-kideei politika nazionalak diseinatzeko orduan:

1. Politika eraikitzaleak, pragmatikoak eta ez diskriminatzaleak izatea
2. Berariaz ijitoei begira aritza baina haien bakarrik aintzat hartu gabe
3. Kulturarteko planteamendua edukitzea
4. Ijitoak gizartearen erabat gizarteratzeko helburua izatea
5. Genero-dimentsioaren kontzientzia izatea
6. Ebidentzietan oinarritutako politikak transmititzea
7. Tresna komunitarioak erabiltzea
8. Eskualdetako eta tokiko administrazioek parte-hartzea
9. Gizarte zibilak parte-hartzea
10. Ijitoen parte-hartze aktiboa bermatzea

7.2. Estrategiaren helburu orokorra eta zehatza

- Helburu orokorra

Gizon-emakume ijitoek ijitoak izateagatik jasaten duten **diskriminazio historiko eta egiturazkoa gainditzen** laguntzea –indarkeria, gorroto-diskurtsoa eta estigmatizazioa eragiten ditu, besteak beste—, **beren ongizate soziala eta partaidetza** gainerako euskal herritarren berdinak izan daitezela **sustatuz**.

- Helburu zehatza

Aurrerapen kualitatiboa sustatzea euskal erakundeek Ijito Herriarentzat eta Herriarekiko gauzatzen dituzten politiketan, dimentsio bikoitzarekin:

- gizarteratzeko eta partaidetza sustatzeko garatzen diren ekintzen katalogoa **eguneratu eta handitzea**; eta
- tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren agenda sendo bat **sustatzea**, euskal gizarte osoari dei eginez ijitoen aukako jarreren kontra borroka dezan.

8. Estrategiaren edukia eta kudeaketa-eredua

8.1. Antolamendua eta egitura

Estrategiaren antolaketa eta egitura aurreko estrategietan baliatutako oso antzekoak dira. Bere esku-hartzearen funtsezko elementua ekintzek osatzen dute, elementu operatibo, zehatz eta planifikatuak baitira, horiek gauzatzeko arduradun bat dutenak. Ekintzetako bakoitzerako, Ijito Herriaren Eusko Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzak

ekintzetan izango duten rola identifikatzen da. Nolanahi ere, Estrategia hau bizia da, ez estatikoa, eta, beraz, aurreikusitako ekintzak unean uneko errealtitateen arabera aldatu daitezke –eta, ziur aski, aldatuko dira–, Kontseiluan parte hartzen duten era-kundeen lankidetzan.

Ekintza horiek jarduera-ildoetan batzen dira, hau da, lortu nahi den helburu edo xedean jasotzen dira horretara bideratutako ekintzak. Ekintzak eta jarduera-ildoak eremu sektorialen arabera antolatzen dira: hezkuntza, osasuna, gizarteratzea eta abar.

Azkenik, agirian aurreratu zen gisan, ekintza guztiekin ardatz estrategiko nagusiri erantzuten diente, koherenzia emateko jarduera guztiei, eta batez ere, Estrategiaren helburu orokorrarekin bat egiteko. Ardatz estrategikoek aurreko 2018-2020 Estrategiakoak hartzen dituzte erreferentziatzat, birformulatuta. Halaber, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren ardatz berri bat sartzen dute, Udaberri 2024 Plana-rekin bat, esparru europarrean jarraitzen den ildotik.

- **I. ardatza. Errespetua:** “ez zaitzatela ijitotzat hartu”.

Azken hori eremu berri bat litzateke Estrategian, aurrekoan pisu gutxiago zuena gizarteratzearen ardatzarekin alderatuta. Gizarte-aldaketa (emozionala eta jarrerazkoa) eragin nahi da Ijito Herriarekiko, eta, era berean, ijitoak diskriminazio-kasuetan babesteko tresnak indartu. Ardatz berri honen garantziak harreman zuzena dauka ijitoen aurkako jarreren gaineko kontzientzia hartzearekin. Izan ere, Europako Batzordearen eta Arrazismoaren eta Intolerantziaren Europako Batzordearen arabera, egiturazko diskriminazio-sistema historikoa da pairatzen dutena.

- **II. ardatza. Gizarte-sustapena:** “nahi duguna izateko libre”.

Ijito Herriak diskriminazio sistematikoa jasan du luzaroan, eta horrek aztarna sakona utzi du, gizarte-bazterketa eta diskriminazioa eragin baititu belaunaldi belaunaldi, pertsonen eremu guztietan: enplegua, osasuna, segurtasuna, hezkuntza, etxebizitzeta eta abar. Horri lehendik ere heltzen zitzaien gizarteratzearen arloan indarrean zegoen paradigmak, baina ezinbestekoa da aurrerantzean ere lantzen jarraitzea, eskubideen berdintasuna oinarri material baten gainean baino ez baita lortuko.

- **III. ardatza. Aintzatespena:** “izan, izateari utzi gabe”.

Estrategian eskubideei ematen zaien ikuspegia jarraikiz, eta UNESCOren Aniztasun Kulturalari buruzko Hitzarmenaren eta Adierazpenaren arabera: “eskubide kulturalak giza eskubideen parte dira [...] pertsona orok eduki behar du aukera hautatzen duen bizitza kulturalean parte hartzeko eta bere praktika kultural propioak gauzatzeko, giza eskubideak eta funtsezko askatasunak errespetatzearen ziozko mugen barruan”. Horrenbestez, ezinbestekoa da balio demokratiko garai-kideen araberako nortasun bat eraikitzearen alde egitea, oreka bilatuz nortasun propioaren, bereziaren eta indartsuaren arteko tentsioan, nortasun ireki, kosmopolita eta aldakorraren aldean. Nortasunaren gaineko gako horietan, Euskal Herriko kide izatearen elementu positiboak (esaterako, euskara) naturaltasunez uztartu behar dira elementu propioekin, kulturartekotasunaren izenean.

Gainera, hiru ardatz horiek paralelismo estua dute euskal erakundeek Gernikako Estatutuaren 9.2. artikuluaren arabera bete behar dutenarekin, zeinari jarraikiz (a) hiritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilpen egokia zaindu eta bermatuko duten; (b) gizabanakoaren eta berori sartuko den taldeen askatasuna eta berdintasuna

zinezkoa eta egiazkoia izan daitezen, diratekeen oztopoak erauzteko eta aldeko kondizioei eragiteko neurriak hartuko dituzten; eta (c) politika, ekonomia, kultura eta gizarte alorretako bizitzan hiritar guztien parte-hartzea erraztuko duten.

Era berean, Udaberri 2024 Planean adierazitako konpromisoarekin bat, Estrategia berriak genero-ikuspegia sartzen du, hau da, azterketa kontziente bat egiten du bertan jasotako neurriek gizon eta emakume ijitoen artean duten eragin desberdinari buruz. Horrez gain, ekintza positibo eta baiezkoen esparru bat sortzeko ahalegina egiten du, emakumeen parekidetasunik ez horri buelta emateko. Hala, Estrategia ijito berria egiteko prozesuan zehar emakumez osatutako eta Emakunderekin eraikitako lan-espazio zehatzak aurreikusi dira, hainbat alderdi egiazatzeko. Halaber, eremu sektorial guztietan sartu da gutxienez ekintza bat berdintasunera begira, horren gaineko eremu zehatz bat aurreikusteaz gain.

8.2. Ebaluazioa eta jarraipena

Aurreko Estrategia eta Planen betebehar handietako bat, eta orain Estrategia berriaren erronka nagusietako bat honako hau da: horien jarraipena egiteko eta edukia ebaluatzeko sistema bat ezartzea.

Estrategiaren ebaluazio eta jarraipenerako espazioa Ijito Herriaren Euskal Kontseilua izango da. Izan ere, gutxienez urtean behin, Batzorde Iraunkorrean edo Osoko Bilkuraren aztertuko du ekintza eta ardatzen garapen-maila zein den. Lan horretan laguntzeko, Kontseiluko idazkaritza teknikoak informazio zehatzat emango du aldian-aldian.

Ebaluazio-une horiek oso garrantzitsuak izango dira, bat etorriko baitira Estrategia garatzean aurrekitutako egikaritze-aldiekin (lehena 2022tik 2023ra, bigarrena 2024tik 2025era, eta azkena 2026an), 10. Atalean (Ekintzen egutegia finkatzeko proposamena) adierazitako eran.

Ebaluazioak, estrategian jasotako ekintzen izaera eta mota kontuan hartuta, batez ere izaera kualitatiboa izango da, eta, horrenbestez, haren azken balorazioan nolabaiteko oinarria emango duten adierazleak aurreratzeko ahalegina egingo da, adierazle horiek partzialak eta mugatuak izan arren. Era berean, ahal den neurrian, datuak sexuen arabera banatzeko ahalegina egingo da.

Jarraipen-lan horretan baina, batez ere estrategiaren ebaluazioan, funtsezko da era-kunde propioen zeregina, garatu nahi diren politiken hartzale diren pertsona eta er-kidegoen ordezkarriak baitira.

9. Ekintzen deskribapena

9.1. Hezkuntza

Uloak	Ekinzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
1. Ildoa. Ikasleen eskola-arrakasta handitzea, eskola inklusibo baten barruan, neskatinengan eta neskengam arreta berezia jarriz eta DBH gainditzen ez duten ikasle ijtoen kopuria muritzuz	1.1. Ikasle ijitoekin bereziki lan egiteko esparru bat sortzea hezkuntza-sisteman, ikastetxe horien planetan emaitzak hobetzeko hellburu zehatzak jaso daitezzen	Hezkuntza Sailak, ikasturte hasierak ebaizten, erreferentzia berriazkoak egingo ditu, ikastetxeek beren proiektu eta planetan ikasle ijtoen emaitzak hobetzeko helburuak jaso ditzaten, emakumezko ikasle ijtoei bereziki ereparatuz eta lagunduz.	Hezkuntza Saila	Kontseilua Ebazpenaren bidalketari buruzko informazioa jasotzea Erakundeak	II. ardatza. Gizarte-sustapena Kontseilua Ebazpenaren bidalketari buruzko informazioa jasotzea Erakundeak Ebazpena eta gomendioen agria ikastetxeetara bidaltzea Berritzeguneak eta ikuskaritza aktibitatea, ikastetxei laguntzeko gomendioak ematen dizkiona.

Iloak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduradluna	Rolak	Ardatzak
1.2. Irakasleei hezkuntzaren eremura aplikatutako gako kultural ijitoet buruzko prestakuntza eskaini eta sustatzea	Eskola inklusibo eta kulturarteko batean hermatu egin behar da irakasleek eta irakaskuntzako langileek hezkuntza-estrategia egokiaak dituztela ikasle, ijitoekin lan egiteko. Sailaren prestakuntza-eskaintzan Ijito Herriaren gako kulturaleti, ikaskunizarako gainditu beharreko oztopoei, ikaskuntzak bizkorizeko eta bizkidezta hobetzeko estrategiei, hezkidetzari eta abarri buruzko eduki espaziokoak sartzea sustatuko da. Era berean, Bilzenek irakasleentzako prestakuntza-proposamen bat eskainiko dio utero Berrizagune Nagusiari, baldiniza horietan. Prestakuntza horietan erakunde ijitoek parte hartuko dute. Zeharka, horietan ijitoen aurkako jarren ikuspedia sartuko da, baita neskatila eta neska ijitoen egoera berezia ere.	Biltzen Hezkuntza Saila	Kontseilua Prestakuntza eskaintzen dela ikuskizuko jarraipena egitea Erakundea Prestakuntzaren edukia diseinatzea Ikastetxeen prestakuntza eskaintzea Irakasleei prestakuntza ematea	I. ardatza. Errespetua II. ardatza. Ainzatespna	

Ildoak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
1.3. Ikasle ijitoekiko ikaskuntza-komunitateen jardunbide egoikak eta esperientziak ezagutaraztea eta balioestea	Ikaskuntza-komunitateak funtsezko esperientziako bat dira, ikastetxe gehiagoan eskalatzeko bokazioa dutenak. Jardunaldi publiko bat antolatuko da abian jarritako ikaskuntza-komunitateen esperientziak irudikatu dituzten eta irudikatzen dituzten emaitzei, tipologiei, ikaskuntzlei, erronkei eta aukerei buruz. Helburua horiek hezkuntza-eragileen artean ezagutaraztea da.	Berdintasun, Justizia eta Gizarre Politiketako Sala	Kontseilua Proposamena eta jardunaldiaren edukia egiazatzea Erakundeak Jardunaldia antolatu eta deitzea	II. ardatza, Gizarte-sustapena	

Iloak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
1.4. Eskolaratze goiztiarrak bat egitea (2-3 urte) ijitoen elkarteen bidez	Eskolaratze goiztiarra faktore babesleitzat hartzten da ondorengo eskolaratze-arazozen eta eskola-arrakastaren aurrean. Ijito Herriaren Euskal Kontseiluak, Hezkuntza Sailaren baimenarekin, eskolaratze goiztiarrari buruz informatzeko eta eremu horretan dauden baliabide arrunten berri emateko. Kanpaina hori ijitoen elkarteen bidez bideratuko da, eta ikastetxe eta profesionalekin lotzen saiatuko da.	Ijito Herriaren Euskal Kontseilua Biltzen	Kontseilua Kanpainaren edukia egiaztatzea Erakundeak	Kontseilua Kanpaina zabaltzea Kanpaina zabaltzea Kanpainaren edukia diseinatzea Kanpaina euskarria diseinatzea	II. ardatza. Gizarte-sustapena

Ildoak	Ekintzak	Deskipzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
1.5. Ikasle ijitoen euskalduniztea indartzea	Ikastetxeen beharrezko baliabideak ematea (orientabideak, estrategiak, giza baliabideak...), ikasleek eskatzen zaien hizkuntza-gaitasuna lor dezaten. Familiiekin euskarara hurbilzeko estrategiak partekatzea eta haien ikaskuniza bultzatzea.	Hezkuntza Saila	Erakundea Jarritako baliabideei buruzko informazioa ematea	Erakundea	II. ardatza, Gizarte-sustapena

Iloak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
1.6. Neska ijitoen eskola-errendimenduko zailtasunei eta oztopoei buruz hausnarazea	<p>Erakunde batzuek erakusten dute lehen hezkuntzan emaitza onak lortzen dihuzien neskato ijitoen kopurua naharmen jaitsi dela, bigarren hezkuntzan emaitza onak lortzen dihuzien aldean.</p> <p>Ildo horretan, ekintza honen helburua da bi etapen deskonexioa eragiten duten kausa, zailtasun edo oztopoen ezagutzan sakontzea. Horretarako, Hezkuntza Batzordearen eta Kontseiluko Emakume ijitoen Batzordeararen bilera deituiko da, eta, Hezkuntza Sailaren parte-hartzearekin, egoera hori saihesteko ekinzak identifikatzeko eta hausnartzeko ahalegina egingo da.</p>	<p>Hezkuntza Batzordea eta Emakume ijitoen Batzordea</p> <p>Hezkuntza Saila</p>	<p>Kontseilua Hezkuntza Batzordearen eta Emakume ijitoen Batzorduaren bilera bateratuaren barruan hausmarketa propioa egiteko denbora gordezea</p> <p>Erakundea</p>	<p>Bileran parte hartzea, bere ezagutza helaraziz</p>	<p>II. ardatza. Gizarte-sustapena</p>

Ildoak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
1.7. Ijito Herriaren Euskal Kontseiluak ijitoen aukako jarretetan oinarritutako eskola -segregazioari/-kontzentrazioari buruz egin beharreko hausnarketa sustatzea, eta hezkuntza-komunitate osoaren hausnarketan ijito Herriak parte har dezan sustatzea	Eskola-Segregazioa/-kontzentrazioa Ijito Herriari eragiten dion fenomenoa edo problematika da, eta aukera ematen du gizarteratzea, aukera-berdintasuna, eskolaratzea eta eskola-errendimendua. Hobetzeko. Ildo horretan, garrantzitsutzat jotzen da ijitoen erakundeek eta ijitoen aldeko erakundeek, baita Ijito Herriaren Euskal Kontseiluak ere, gogoeta egin ahal izatea horri buruz, arreta berezia eskainiz ijitoen aurkako jarrerek problematika horretan izan dezaketen zereginari. Horretarako, gai horri buruzko ikerketak egin dituzten pertsonen ezagutza edukiko da. Era berean, gai horri jorratzen duten foroetan, eztabaida-taldeetan edo eztabaida-gune instituzionaletan parte hartzeko erraztasunak jarriko dira.	Ijito Herriaren Euskal Kontseilua Hezkuntza Saila	Kontseilua Hezkuntza Batzordearen baitan hausmarketa propioa egiteko denbora gordetzea Foto, espazio eta eztabaida-taldeetan parte hartzea Erakundeak	Kontseilua Hezkuntza Batzordearen baitan hausmarketa propioa egiteko denbora gordetzea Foto, espazio eta eztabaida-taldeetan parte hartzea Erakundeak	I. ardatza. Errespetua II. ardatza. Gizarte-sustapena

Iloak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
1.8. Ijito-familien parte-harizeta sustatzea ikastetxeetako prestakuntza-programetan	Kontseiluko Hezkuntza Batzordeak gogeta bat sustatuko du Hezkuntza Sailarekin lankidetzen, azterizeko ea zein ozlopo ari diren eragien ijito-familien presenzia txikia izatea familiertzako prestakuntza-programetan, besteak beste hizkuntza, matematika, IKTak eta euskarra bezalako gaietan. Ozlopo horiei erantzuteko neurri gisa, eta, halaber, kontzentrazio horretan eragin dezakeen beste edozein baldintzari erantzuteko ere, Helduen Hezkuntzako Ikastetxeen eta bestelako ikastetxeen arteko lankidetza bultzatuko da, familiei prestakuntza eskaintzeko, eta, halaber, IGEEn federazioak animatuko dira IGEEn eskaín diezaleten ikasle ijitoak dituzten ikastetxeetako gai instrumentalei buruzko prestakuntza-ikastaroak. Ama ijitoek prozesu horietan duten zereginakontuan hartuko da, berdin tasunaren, gurasoekiko erantzukidetasunaren, lidergotzaren eta parte-hartzearen ikuspuntik.	Jitzi Herriaren Euskal Kontseilua Hezkuntza Batzordearen baitan hausmarketa propioa egiteko denbora gordetzea Erakundeak Ekintza identifikatu eta garatzeko orduan parte hartzea	Kontseilua Hezkuntza Batzordearen baitan hausmarketa propioa egiteko denbora gordetzea Erakundeak Ekintza identifikatu eta garatzeko orduan parte hartzea	Kontseilua Hezkuntza Batzordearen baitan hausmarketa propioa egiteko denbora gordetzea Erakundeak Ekintza identifikatu eta garatzeko orduan parte hartzea	II. ardatza Gizarte-sustapena

Ildoak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
2. Ildoa. Ijitoen kulturaren presentzia sustatzea hezkuntza-eremuan	2.1. Sustatzea Ijito Herriaren historia eta kultura nahitaezko curriculumaren barrian sartzea, LOMLOE-k ezartzen duena aintzat hartuz	Egiten ari diren hezkuntza-erreformen esparruan eta beste autonomia-erkidego batzueta hasitako bideari jarraituz. Hezkuntza Sailak Ijito Herriaren historia derrigorrezko escola-curriculumean sartzea sustatu dezala proposatzen da. Edukian arretxa heretza eskainiko zaie ijitoen aurkako jarrerei, generoaren zioz geritzen diren ijitoen aukako jarrerei eta emakume ijitoek herriaren bilakeraen egiten duten ekarpenari.	Hezkuntza Saila	Kontseilua	I. ardatza. Errespetua II. ardalza. Aintzatespna Edukiaren txertaketari buruzko informazioa jasotzea Erakundeak Ijito Herriaren historia jasotzea

Iloak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
2.2. EAEko Ijito Herriari buruzko material hirueleduna prestazea, ikastetxetara bidalizeko	Aurreko ekinzari dagokionez, kanpoko eragile batek material didaktiko hirueleduna prestatuko du (erromania, euskara, gaztelania). Ijito Herriak EAEn duela host mendetik hona izan duen presentziaren funtszko alderdi batzuk jasoko dituena, ikasle ijitoenitzat zein gaineko ikastetxetar, oro har. Material hori Konseiluak baliozkoitu beharko du, eta Hezkuntza Sailaren alba eta baimena izan beharko diu. Edukian arretxa berezia eskainiko zaie ijitoen aurkako jarreter, generoaren zior gertazten diren ijitoen aurkako jarreter eta emakume ijitoek herriaren bilakaeraen egiten duten ekarpenari.	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila Hezkuntza Saila	Konseilua Material didaktikoaren edukia egiazatzea Erakundeak Kanpoko eragile bat kontratatzea Ikastetxeen materiala bidalzea	I. ardatza. Errespetua III. ardatza. Ainzatespna	

Ildoak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
3. Ildoa. Derrigorrezko ez den hezkuntzarako sarbidea sustalzea	3.1. Ikasle ijitoak unibertsitatean, lanbide-heziketan eta aharretan sustalzeko formulak identifikatzea	Erronka handienetako bat da ikasle ijitoek derrigorrezko hezkuntzaren osteko hezkuntza-mailak lortzea. Beste erkidego balzuetako esperientziak erreferentziatzat hartuta, EAEn ikasle ijitoei unibertsitatean eta lanbide-heziketan sartzen lagunteko esperientzia pilotu bat ezartzeko terminoak identifikatzen jarraiteza plantearazten da, betiere kostuak eta parte-hartzaile kopuruak gutxieneko bat lortzen badute. Esperientzia pilotu horrek 25 urteetik gorakoentzako sarbide-proba prestatzea eta ikasleei laguntea sustatu ahalko du, Estatuan dauden esperientzia arrakastatsuak kontuan hartuta.	Ijito Herriaren Euskal Kontseilua Hezkuntza Saila	Kontseilua Beste erkidego balzuetan horrelako esperientziak ezagutzeko gune bat gordetzea Erakundeak Projektua diseinatzen laguntzea	II. ardatza, Gizarte-sustapena Beste erkidego balzuetan horrelako esperientziak ezagutzeko gune bat gordetzea Balialbide egokiak dituen eta gutxieneko ikasle-kopurua bernatuko duen proiektu bat diseinatzea Projektua diseinatzen laguntzea Projektua ezartea, administrazio-tresmarik egokienaren bidez

Ildoak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
4. Ildoa. Eten digitala murriztea	4.1. Eten digitalari aurie egiteko erakundeek prestatutako baliabideei buruzko informazio-kampaina bat egitea	Pandemian zehar, ijito-familieta eragin handiena izan duen elementuetako bat, gaixotasunetik harago, on-line eskolaren jarraipena izan da. Eten digitalari aurre egiteko, erakundeek hainbat ekintza eta programa jarri dituzte abian, ijito-familiek beti exagutzen ez dituzienak. Horiei huruzko informazio-kampaina bat egitea proposatzen da, ijito-familien eskuragarritasuna, baldintzak eta irisgarritasuna argituz. Kampaina hau elkarteen bidez gauzatuko da, bereziki.	Berdintasun, Justizia eta Gizarre Politiketako Saila Hezkuntza Saila	Kontseilua Kampainaren edukia egiaztatzea Erakundea	II. ardatza Gizarte-sustapena Kampainaren edukia Kampaina zabaltzea Erakundea Kampainaren edukia diseinatzea Kampainaren euskarria diseinatzea

Ildoak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
4.2. Hezkuntza-balibideetara bideratutako gastuak pertsonen oinarrizko premiatzat hartzen direla hermatzea, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistemaren prestazioen eremuan	Pandemian, ijitoen elkartek eta familiaiek jasandako egoeretako bat izan da prestazio ez-kontributibo eta baldintzadun jakin batzuk bateraezinak izan direla informatika-ekipamenduen erosketarekin. DSBE aldatzeko lege-proiektuan egoera hori kontuan hartzea proposatzen da.	Biltzen Ijito Herriaren Euskal Kontseilua	Kontseilua DSBE aldatzeko lege-proiektuan jarrapena egitea Erakundea	kontseilua DSBE aldatzeko lege-proiektuan jasotzea	II. ardatza, Gizarte-sustapena

9.2. Osasuna

Uloak	Ekinzak	Deskripzioa	Arduraduma	Rolak	Ardatzak
5. Ildoa. Ijito-ikuspegia erikidego-osasunean sartzea	5.1. Ijito Herriaren osasunaren gizarte-balidintzaileei buruz ikertzea	Osasun Sailaren esparru estrategikoak aurreikusten du baldintza sozioekonomikoetan eta ingurumen- eta lan-baldintzetan eragitea, osasunerako ingurune egokiak ahalbidetzeko, eta aurreikusten du, halaber, osasun komunitarioa indartztea; horretarako, komunitateek euren osasunean eragiten duten prozesuetan parte hartuz, aukera izango dute osasun-premiei erantzun hobeak emateko, osasun-baldintzatzaireen gainean kontrol hobeak izateko eta, ondorioz, ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko.	Ijito Herriaren Euskal Kontseilua Kontseilua Osasun Saila (Osasun Sailburuordetza)	Kontseilua Azterlanaren metodologia eta helburuak finkatzen laguntzea Ijitoi sarbidea erraztea azterlanean parte har dezaten Azterlanaren ondorioak egiaztatzea Erakundeak	II. ardatza. Gizarte-sustapena Azterlanaren metodologia eta helburuak finkatzen laguntzea Ijitoi sarbidea erraztea azterlanean parte har dezaten Azterlanaren ondorioak egiaztatzea Erakundeak Azterlanaren disemina, baliabideak erraztea eta azterlana implementatzea.

Ildoak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
5.2. Osakidetzako langileei osasunaren eremura aplikatutako gako kultural ijitoi buruzko prestakuntza eskaintzea	Osakidetzak bere langileenatzat duen prestakuntza-planaren barruan, Biltzen erakundea ematen duen kulturarte-kasum-ikastaroari lotutako edukiak sartzen dira. Ijito Herriaren gako kulturalak txertatzea proposatzen da, osasun-eremuari aplikatukak, bai eta tratu-berdinatasuna eta diskriminaziorik ezarri, kolektiboari bereziki zuzendua, ijito-elkarteen partaideitzarekin. Eduka eta haren sakontasuna handitzeko aulkera haloratuiko da.	Biltzen Osasun Saila (Osakidetza: Prestakuntza Programa)	Kontseilua Biltzenek prestakuntza eskaintzen duela ikuskitalzeko jarraipena egitea Erakundeak Prestakuntzaren edukia diseinatzea Profesionalei prestakuntza eskainiztea Prestakuntza ematea	Kontseilua Biltzenek prestakuntza eskaintzen duela ikuskitalzeko jarraipena egitea Erakundeak Prestakuntzaren edukia diseinatzea Profesionalei prestakuntza eskainiztea Prestakuntza ematea	I. ardatza. Errespetua II. ardatza. Ainzatespna II. ardatza. Gizarte-sustapena Prestakuntzan parte hartzea Erakundeak Eduka diseinatu eta ematea
5.3. Euskal Osasun Sistema ezagutaraztea ijitoen elkarteei eta ijitoen aldeko elkarteei	Ijitoen erakundeak eta ijitoen aldeko erakundeak hainbat modutan ari dira lankidetzen Euskal Osasun Sistemarekin, eta haren funtzionamenduari buruzko ezagutza handiagoa eta hobea behar dela sentitzen dute. Ildo horretan, konpromisoa hartzen da Osasun Sailak prestakuntza eman diezaion Kontseiluko Osasun Batzordeari sistema horren funtzionamenduari eta antolamenduari buruz.	Ijito Herriaren Euskal Kontseiluko Osasun Batzordea Osasun Saila (Osasun Sailburuordetza)	Kontseilua Prestakuntzan parte hartzea Erakundeak Eduka diseinatu eta ematea	II. ardatza. Gizarte-sustapena	

Iloak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
5.4. Adikzioen VII. Euskal Planari ekarpenak aurkeztea eta ekarpen horiek jasozea	Osasun Sailak Adikzioen VII. Euskal Plana prestakuko du. Iñjitoen elkarteen eta iñjitoen aldeko elkarteen intereseakoa da haien edukia ezagutzea eta ekarpenak egin ahal izatea. Ekinzia honek planaren zirriborroa iñjito Herriaren Euskal Kontseiluaren Osasun Batzordean aurkezieko konpromisoa haritzen du.	Iñjito Herriaren Euskal Kontseiluko Osasun Batzordea	Kontseilua Aurkezpenean parte hartzea	VII. Planaria ekarpenak egitea Erakundea	II. ardatza. Gizarte-sustapena
6. ildoa. Osasunaren sustapena	6.1. Iñjitoen errealtitarea egokitza eta haurren obesitateari eta elikadura-ohitura osasungarriei buruzko kampainak eta programak	Obesitatea eta, bereziki, haur-obesitatea, euskal gizarte osoan bezala, haur iñjtoi eta eragiten dien arazoa da. Osasun Sailaren plan eta kampaña orokoren esparruan, iñjitoen errealtitarea egokitza baloratuko da, sentsibilizazioari eta elikadura-ohitura osasungarriei dagokienez. Horretarako, iñjitoen elkarteeek eta iñjitoen aldeko elkarteeek egiten duten lana babestuko da.	Iñjito Herriaren Euskal Kontseilua Osasun Saila (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza; Osakidetza)	Kontseilua Kampainaren edukia egiaztatzea Kampaña zabaltzea Erakundea	II. ardatza. Gizarte-sustapena

Ildoak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
6.2. Minbizia bahetze-ko programarei buruzko sensibilizazio-kanpaina-nak ijitoen errealitate-ra egokitza	Osakidetzak egiten duen Paziente Bizia programaren esparruan eta, halaber, bularreko ,koloneko eta umetoki-lepoko minbizia bahetzeko programaren esparruan ere, programa horien informazioa ijitoei egokizeko aukera baloratuko da. Bularreko eta umetoki-lepoko minbizia bahetzeko programetan emakume ijitoen elkarretek parte hartzea sustatuko da. Gainera, Ijito Herriaren Euskal Konseiluarekin lankidetzan aritzeko interesa erakutsi duten beste gizarte-erakunde batzuen (AECC, esaterako) lanarekin lotura bilatzeko ahaleginak egingo dira	Ijito Herriaren Euskal Konseiluko Osasun Batzordea eta Emakume Ijitoen Batzordea Osasun Saila (Osakidetza)	Kontseilua Kanpainen eduki informatiboak egiazlatzea Kanpaina zabaltzen laguntzea Erakundea	Kontseilua Kanpaina informatiboen edukia egokitzea	II. ardatza, Gizarte-sustapena

Iloak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
6.3. Iñitoen elkarteen eta iñitoen aldeko elkarteen artean <i>Osasuna sustatzen duen iñitaren figura bultzatzea</i>	Paziente Bizia programan aurera egitea, osasuna sustaizen duten iñitoen prestakuniza sakontzeko eta iñitoen premiei egokiutzeko	Iñito Herriaren Euskal Kontseilua Osasun Saila (Osakideza)	Kontseilua Programaren egokitzapenean parte hartzea Prestakuntzan parte hartzea Erakundea	Kontseilua Programaren egokitzapenean parte hartzea Prestakuntzan parte hartzea Prestakuntza-programamaren edukia iñitoen premiei egokitzea	II. ardatza. Gizarte-sustapena

Ildoak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
6.4. Emakume ijitoen osasunari buruzko lan-jardunaldi bat antolatzea	Lan-jardunaldi bat antolatuko da ijitoen elkartekin eta ijitoen aldeko elkartekin, Osasun Sailleko arduradunekin, Emakundererekin eta beste eragile soziosanitario batzuekin, Ijito Herriaren osasunaren gizarte-haldintzaileei buruzko azterlanean (6.1) emakumeen osasunari buruz jasotako datuei buruz hausnartzeko. Jardunaldi horretan, emakumeen osasuna hobetzeko neurriak edo jarduerak identifikatuko dira, eta, bereziki, honako hauek: osasun fisika oro har, emakumeen osasuna eta ginekologikoa, sexuala eta ugalketarekin lotutakoa, zainzen eragina osasunaren eta ongizate psikologiko eta emozionalaren egoeran, medikazioaren erabilera eta ahar.	Ijito Herriaren Euskal Kontseilua Osasun Saila Emakunde Biltzen	Kontseilua Jardunaldian parte hartza Erakundeak	Jardunaldia antolatu eta berian parte hartza	II. ardatza, Gizarte-sustapena

9.3. Etxebizitza

Uloak	Ekinzak	Deskripzioa	Arduraduma	Rolak	Ardatzak
7. Ilhoa. Etxebizitza eskuratzeko aukera berdinak sustatzea	7.1. Kontseiluaren Etxebizitza Batzordea sendotzea, sail eskudunarekin hitz egiteko gune gisa	Aurreko legegintzaldian, ijito Herriaren Euskal Kontseiluan batzorde berri bat eratu da modu “prikarioan”, etxebizitza eskaratzeko aukerei buruzkoa. Ekintza honen helburua da ijitoen erakundeen eta sail eskudunaren arteko elkarritzeta-gune hori zaintzeko eta nantentzeko bultzada eta konpromisoa ziurtatzea.	Ijito Herriaren Euskal Kontseilua Kontseilu Etxebizitza Batzordean parte hartzea <u>Erakundea</u>	Kontseilua Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila Etxebizitza Batzordean parte hartzea	II. ardatza. Gizarte-sustapena
	7.2. Alokabide eta Etxebideko angileei etxebizitza publikoaren eremura aplikatutako gago kultural ijitoei buruzko prestakuntza eskaintza	Beste edozein arlotan bezala (Osasuna, Hezkuntza edo Segurtasuna), etxebizitza publikoarenean ere interesa du, eta beharrezko da kulturartek gaitasunetan edo tratu-berdintasunaren eta diskriminazioik ezaren gaitasunetan prestaztea. Biltzenek prestakuntza-proposamen bat eskainiko dio utero Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari, bere langillei eskain diezaien, eremu horretako gako kultural ijitoei buruz, ijito-elkarteen parte-hartzearekin.	Biltzen Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila	Kontseilua Biltzenek prestakuntza eskaintzen duela ikuskatzeko jarraipena egitea <u>Erakundea</u> Prestakuntzaren edukia disenatzea Professionalei prestakuntza eskaintza	I. ardatza. Errespetua III. ardatza. Aintzatespna

Ildoak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
73. Etxebizitza-politiken eremuari kulturarteko bitartekaritzaren ikuspegitik baliabideak sortzearen egokitasuna baloratzea	Beste erkidego batzuetan, baina baita EAen ere, badira etxebizitzaren esparruan kulturarteko bitartekaritza aplikatu deneko esperientziak. Alde prezentibotik (familiei laguntzeko etxebizitza esleitzten den unean) zein erreaktibotik.-bizikideiza-gatazkariak egonez gero. Ekinliza horren bidez, Alokabidek horrelako baliabideren batizatea egokia den baloratuko da, bai eta, hala badagokio, baliabide hori emateko dauden aukerak ere. Esparru horretan, halaber, zailtasunak izan litezke etxebizitzak onartzearerin edo uko egilearekin, behar bezala egaiztatutako egoera jakin batzuetan edo bestelako gorabehera jakin batzuetan. Honako helburu hau lortzea desiragarria litzateke: elkarteeek eta sail eskudunak parte hartzen duten baitzordean protokolo bidez zehaztu ahal izatea kasu horietan bien arteko harremana, erreferentiazko personak, kanalak eta egoerak identifikatuz.	Ijito Herriaren Euskal Kontseilua Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sala	Kontseilua Premia eta tresna erabilgarri mobilizagarriak identifikatzea, horiei erantzuteko Erakundeak Beharrak eta tresnak identifikatzen laguntzea Projektua ezartzea, egokituz joazen den eran	Kontseilua I. ardatza. Errespetua II. ardatza. Gizarte-sustapena	

Iloak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
74. Iñjitoek merkatu librean etxehizitza eskuratzeko duten diskriminazioari buruzko sensibilizazio-kanpaina sustatzea	Kontseiluaren Elxehizitza Baizordea, Eraberean Sarearekin (fratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezzerako euskal sareal) lankidetza, alokairuko etxehizilzen merkatuko eragileengan eragiten saiatuko da, Eraberean Sareak 2019an materialak herreskuratzeko egindako sensibilizazio-kanpaina espesifiko baten bidez, eta higiezinen agenziiekin egindako testing-ekintza baten bidez.	Iñjito Herriaren Euskal Kontseilua Eraberean	Kontseilua Testing-ekintzarekin lankidezan ariztea Kampainaren edukia hedaztea Erakundeak	Kontseilua Testing-ekintzarekin lankidezan ariztea Kampainaren edukia hedaztea Kampaina hedatzen laguntzea	I. ardatza. Errespetua II. ardatza. Gizarte-sustapena

Ildoak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
8. ildoa. Elxebizitzaren biziagarritasun-baldintzak hobetzea	8.1. Elxebizitzari eta ijito-populazioari buruzko azterlan/mapa bat egitea, European eta Estatuan egiten direnekin homologatu daitekeena	Estatuko beste Iurrealde batzuetako errealitatean ez bezala, EAEn ez dago ijito-biztanleriaren artean infraetxearen arazo orokorturik. Hala ere, beste azterlan eta txosten batzuek hainbat arazoren berri ematen dute (gainokupazioa, konzentrazioa, patologiak...) eta oinarritzko ongizate-gabeziak islatzen dituzte (temperatura egokia, ekipamendua...). Ekintza honetan, kanpoko eragile batzak azterketa/mapa bat egitea aurrikusen da, errealitate horiek oro har objektibatzen, ezaugarritzen eta diagnostikatzzen saiatzeko. Elxebizitzaren Euskal Behatokiaren eta Berdintasun, Justizia eta Gizarle Politiketako Sailaren Estatistika Organoaren lankidetza izango da. Azterlanean, guraso bakarreko familiak, bakarrik hizki diren adineko emakumeen eta gazteen errealitateari areta berezia emanago zaio. Azterlana egileko, inkestatzale ijitoak egongo dira.	Ijito Herriaren Euskal Kontseilua Lurralde Plangintza, Elxebizitzia eta Garraio Saila Berdintasun, Justizia eta Gizarle Politiketako Saila	Kontseilua Azterlanaren metodologia eta helburuak halizkotzea Familiei sarbidea erraztea eta azterlanarekin lankidetzan aritzea Azterlanaren ondorioak halizkotzea Erakundeak Kanpoko eragile bat kontratatzea Datuak errazlea eta azterlanarekin lankidetzan aritzea	II. ardatza, Gizarde-sustapena

9.4. Gizarteratzea eta laneratzea

Iloak	Ekinzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
9. iloa. EAEko ijito Herriaren beharren diagnostikoa egunerautza	9.1. EAEko ijito Herriaren beharren diagnostikoa egitea	2006. urtean, Eusko Jaurlaritzako orduko Elxebizitza eta Gizarre Gaiaen Sailak eskatuta, ikusbidetik diagnostiko bat egin zuen Euskadiko Ijito Herriaren beharrei buruz. 15 urte gerogoa, gaieren gaineko beste aztertan edo ikerketarik ez dagoenez, beharrezko da diagnostiko hori egunerautza. Ekintza horren barrian, diagnostikoa kampoko agente batek egitea sartzen da. Diagnostiko horretan berariaz egongo da atal bat enmakume ijitoen errealtitateari buruz, eta genero-ikuspegia txertatuko da.	Ijito Herriaren Euskal Kontseilua Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila	Kontseilua Diagnostikoaren edukia eta metodologia egiaztatzea Erakundeak Kanpoko eragile bat kontratatzea	II. ardatza. Gizarte-sustapena

Ildoak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
9.2. Diagnostikoaren edukia sozializatzea		<p>Diagnostikoa hainbat eremutan sozializatuko da, besteak beste euskal eremu instituzionalean eta hirugarren sektore sozialean, errealtatearen berri izan dezaten eta esku hartzeko etorkizuneko estrategiak identifikatzeko orduan batu daitezten. Diagnostikoa aurkeztu eta hari buruz eztabaidatzeko jardunaldi bat antolatuko da. Bertan, ijitoen erakundeek eta ijitoen aldeko erakundeek paraidetza nabarmena izango dute. Sozialrazio horretan Ijito Herria estigmatizatzen ez dela zainduko da.</p>	<p>Ijito Herriaren Euskal Kontseilua Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila</p>	<p>Kontseilua Aurkezpen-jardunaldian parte hartzea Erakundeak</p> <p>Aurkezpen-jardunaldia antolatu eta bertan parte hartzea</p>	<p>II. ardatza. Gizarte-sustapena</p>
9.3. Pertsona nagusien, aniztasun funtzionala duten pertsonen edo/ eta buruko osasuneko arazoren bat duten pertsonen beharitzan espezifikoak identifikatzzen hastea		<p>Interseksionalitatetik abiatuta, eta Ijito Herrian dauden askotariko beharrak agerian jartzeko (Ijito Herria bera ere askotariko baita), garrantzitsua da behar horiekin identifikatzeko lanean hastea, ijitoekin batera.</p>	<p>Ijito Herriaren Euskal Kontseilua Biltzen Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila</p>	<p>Kontseilua Beharrak identifikatzzen parte hartzea Erakundeak</p> <p>Behar berriak identifikatzeko lan-saiok deitu eta erraztea</p>	<p>II. ardatza. Gizarte-sustapena</p>

Iloak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
10. ildoa. Gizarte Zerbitzuuen Euskal Sistemaren, Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemaaren eta Ijito Herriaren arteko elkarzunteen aritzeko sakontzea	10.1. Lanbideko Prestazio eta Inklusio Zuzendaritzarekin komunikazioa izan eta elkarritzetan aritzeko kate bat sortzea	Diru-sarrerak bermatzeko sistemanaren erreforma desberdinak aholkaizen duten eremu instituzionalaren eta ijitoen erakundeen eta ijitoen aldeko erakundeen artean komunikazio, elkarritzeta eta trukerako komunikazio-kateak sortzea. Ekintza horren barruan, ijito Herriaren Euskal Kontseilharekin komunikazioa izateko kate hori identifikatu behar da.	Ijito Herriaren Euskal Kontseilua Lan eta Enplegu Saila	Kontseilua Espazioan parte hartza Erakundeak	II. ardatza. Gizarte-sustapena
	10.2. Gizarte Zerbitzuuen Zuzendaritzarekin elkarritzeta eta trukerako espazio bat sortzea	Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak familia ijitoekin egiten dituen esku-hartzeak egokitzeko beharraren ondorioz, komenigarria da eremu instituzionalaren eta ijitoen erakundeen eta ijitoen aldeko erakundeen arteko topaketa, elkarritzeta eta trukerako espazioak sortzea. Ekintza horren barruan, ijito Herriaren Euskal Kontseiluaren baitan espazio horren deialdia egin behar da. Ijito Herriaren Euskal Kontseiluko ordezkariek Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan benetan parte hartza sustatuko da, haren parte denez gero.	Ijito Herriaren Euskal Kontseilua Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila	Kontseilua Espazioan parte hartza Erakundeak	II. ardatza. Gizarte-sustapena

Ildoak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
10.3. Ijitoen erakundeen eta ijitoen aldeko erakundeen partaidezta sustatzea hirugarren sektore sozialeko sareetan eta plataformetan	Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren ezagutza sustatzeko eta ijitoen erakundeen eta ijitoen aldeko erakundeen partaidezta bultzatzeko beren zerbitzuak diseinatu eta hornitzeko orduan, beste gizarte-erakunde batzuek egiten duten bezala, erakundeeek eremu horretako plataforma propietan duien partaidezta sustatu eta bultzatu dadila proposatu da. Emakume ijitoen elkarteei bereziki erreparatuko zaie.	Ijito Herriaren Euskal Kontseilua Biltzen	Kontseilua Beste sare eta plataforma baltzuelan parte hartzea <u>Erakundea</u>	Kontseilua Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sala	II. ardatza, Gizarte-sustapena Sare eta plataformetako partaidezta sustatzea, harremanak eta bilerak erraztuz

Iloak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
10.4. Leguntzen eta dirulagunten deialdi desberdiniei buruzko informazioa ematea	Barnetxoa jardunaldi bat antolatuko da Kontseiluan, dauden lagunizen eta dirulagunten deialdien beren baldintzen eta ezaugarri orokoren berri emateko.	Jitzi Herriaren Euskal Kontseilua Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila Lan eta Enplegu Saila Osasun Saila Kultura Saila Hezkuntza Saila	Consejo Reservar tiempo para esta jornada informativa Institución Participar en la jornada ofreciendo la información solicitada	Eje II. Promoción social	

Ildoak	Ekintzak	Deskripzioa	Arduraduna	Rolak	Ardatzak
